

Behin-behineko ebazpena, Hezkuntza Politiketako sailburuordearena, zeinaren bidez egiaztatzen baita Euskal Autonomia Erkidegoan funts publikoen bitartez finantzatzen diren unibertsitatez kanpoko ikastetxeetako irakasleek lortutako konpetentzia digitala Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak xede horretarako antolatutako prestakuntza-jarduerak gauzatuta.

Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko ikastetxeetako irakasleen konpetentzia digitala egiaztatzeko prozedura arautzen duen 2024ko azaroaren 29ko Hezkuntzako sailburuaren Aginduak, irakasleen prestakuntzaren arloan eskumena duen organoak ofizioz egiaztatu ahal izango duela irakasleen konpetentzia digitala ezartzen du, xede horretarako aitortutako prestakuntza-jarduera gainditu dutenei.

Beraz, Hezkuntza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen azaroaren 19ko 381/2024 Dekretuan aurreikusitakoarekin bat etorriz (2024ko abenduaren 3ko EHAA, 235. zk.) eta eman zaizkidan ahalmenak baliatuz, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa

Ofizioz egiaztatzea Euskal Autonomia Erkidegoan funts publikoen bitartez finantzatzen diren unibertsitatez kanpoko ikastetxeetako irakasleen konpetentzia digitala, maila bakoitzean Irakasleen Konpetentzia Digitala lortzeko Hezkuntza Sailak ezarritako prestakuntza gainditu dutenei.

Zehazki, irakasleen konpetentzia digitalaren A2, B1 eta B2 mailak egiaztatzen dira, prestakuntza-jarduera hauetan,

IKASTURTEA	IKASTAROAREN KODEA	HASIERA DATA	AMAIERA-DATA
2024/2025	2472BGN10	2024/11/11	2025/06/18
2024/2025	2472BGN12	2024/11/11	2025/06/18
2024/2025	2472BGN20	2025/04/30	2025/06/16
2024/2025	2472BGN21	2025/04/30	2025/06/16
2024/2025	2472BGN22	2025/04/30	2025/06/16

Bigarrena

1. Lortutako irakasleen konpetentzia digitalaren maila egiaztatzen duen dokumentua ematea. Heziguneko Langileen Atariko eremu pribatuan eskuratu ahal izango da.

2. Egiaztagiriak Estatuko lurralde osoan balio du.

Hirugarrena

Hamar egun balioduneko epea ezartzea, Hezkuntza Sailaren atarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, erreklamazioak aurkezteko. Behin betiko ebazpenaren bidez jakingo da erreklamazio horiek onartu edo ezeztatu diren. Behin betiko ebazpen hori behin-behineko ebazpena argitaratu eta gehienez hilabeteko epean argitaratuko da.

Vitoria-Gasteiz, sinatzen den eguna,

Lucia Torrealday Berrueco
Hezkuntza Politiketako sailburuordea